# ERMUTARRAK XAKE TALDEKO FAMILIA

Ermuko Xake Taldeak, gaur egun adin guztietako partaideak biltzen ditu, 40 inguru guztira, denen artean familia sendoa osatuz.

Ongarai kalean dute beren jolastokia, Gure Etxea deritzon lokalean hain zuzen ere. Ostiral arratsaldetan eta larunbat goizetan izaten dira haurrentzako xake ikastaroak eta nagusien entrenamenduak.

David Rosero ermuarrak, begirale lanetan dihardu Ermuko eskoletako haurrei ikastaroak emanez. Gaur egun, 10 bat haur ari dira ikastaro horietan.

Ermutarrak Xake Taldeak, bi talde ditu Bizkaia mailan antolatzen diren txapelketetan parte hartzeko; horietako batek lehenengo mailan jokatzen du eta besteak, aldiz, bigarren mailan.

Orain dela gutxi bukatu dute liga eta, nahiz eta urte ona burutu, ez dute beren maila ezberdinetan igoerako fasean jokatzerik lortu.

Liga bukatu ostean, orain udako txapelketetan parte hartzeko itxaropena dute, Bizkaia zein Gipuzkoako herrietan zehar.

Denboraldia uztailean bukatuko dute, Santixau jaien inguruan, Ermuko Xake Txapelketarekin.

Gaur egun Xake munduan Javi Muñoz dugu Ermuko izar nagusia, bera izan baita azken urteotako txapelduna, nahiz eta azkenaldian xakea alde batera uzten hasia den.

ASIER IBAIBARRIAGA



**Estanko SOLOZABAL**

Daniel Solozabal Areitio

Torrekua, z/g. • Tfnoa. 17 07 33
ERMUA




**DROGETENITTURRI - EUSKAL BIRUSA**

**247 Posta Kutxa 48260 Ermua**

Izen-abizenak ........................................ Telefonoa ..................

Helbidea ..........................................................................

☐ ETXEAN JASO NAHI DUT ALDIZKARIA ☐ DROGETENITTURRIN PARTE HARTU NAHIKO NUKE

☐ EUSKAL BIRUSAN PARTE HARTU NAHIKO NUKE, BESTE EKINTZA BATZUETAN

Norbait agurtu edo zoriondu, zeozer saldu, erosi edo aldatu, ala beste edozer esateko hementxe duzu zeure lekua: ..........................................................

..........................................................................................




*Familia honetako partaideak ditugu hauek, bere maila ezberdinetakoak.*



ZABALA
BURDINDENDA
ETXE HORNIDURA
BRIKOLAJEA
OPARIAK
ELEKTRIZITATEA
Zubiaurre, 27
Tfnoa. 17 09 17

OLGA
Loraregia
Zubiaurre 4. zbk.
48260 ERMUA
LOREGINTZAN DIPLOMATUA
Telf. 17 35 61
Part. 70 17 88

AHOLKULARITZA FISKAL eta LEGALA
URIARTE IRAEGUI, S.L.
Valdespinako Markesa, 14 - behea
Telefonoa: 17 33 87 • 48260 ERMUA (Bizkaia)

Pajaro's
GAZTE MODA
San Pelaio, 20
Tlf. 17 16 74
ERMUA

ZARAUZTARRA
JATETXEA
LEHEN, ORAIN
ETA BETI
- Zapua
- Txuletak
- Bildotsa burduntzian
- Laranja flana

